

OSO GARRANTZITSUA

Eskola-egutegia eta ordutegiarekin batera, saia zaitetze orri hau beti toki ikusgarrian izaten, noiznahi edo edozein zalantzaren aurrean modu errazean eskuratzeko.

2 URTEKO HAURRENTZAKO ARAUAK

1).- IDENTIFIKAZIO-TXARTELA

- Bete datuak.
- Norberaren dagokion ikurra erantsi.
- Umeak egunero toki ikusgarrian eramango du.(Motxilan)

2).- PARTAIDETZA ETA PUNTUALITATEA

- Umeak, sukarrak edo gaixotasun kutsakorrik ezean, egunero etorri behar du eskolara.
 - Eskolara sartzeko ordua errespetatu behar da. 8:50etan ate txikia zabalduko da eta gurasoak eta umeak sartu ahalko dira itxaroteko eraikuntza bien ateak zabaldu arte.
- 9:00etan eraikuntza zuriko atea eta gorrikoa zabalduko dira
- Edozer dela eta (mediku-kontsulta edo beste) ordutegia bete ezin ezean, aurreko egunean edo egun berean telefonoz tutorea jakinaren gainean jarri eta zein ordutan ekarri ahal duzuen umea aipatu, atezainak ate txikian jasoko du adostutako orduan.

3).- MATERIALA

- Egunero motxila (**gurpil gabekoa**) bat ekarri behar da.
- Sei dodotis ikasgelan uzteko (erabiltzen dutenek) eta behar duten krema mota.
- Motxilan egunero beharrezkoak diren dodotidak ekarriko dituzte.
- Kutxa bat oihal bustiak
- Txupetea kutxatxo batean sartuta (behar izatekotan).
- Manta bat (hiruhilabetekoan behin etxera eramango dute garbitzera) Lo egiteko ekartzen duzuen material guztia (manta , panpina..) eskolan geratuko da, ez da etxera egunero bidaliko.
- Argazki bilduma eta iruzkinak eginda azpian
- MATERIAL HAU GUZTI A IZENAREKIN IPINITA EKARRI BEHAR DUZUE.

4).- ARROPA

- Mantala derrigorrezkoa da. Botoiduna (belcrorik ez) eta aurretik lotzekoa, izena aurrean (hizki larriz) **eta eskegi ahal izateko oihal-xingola edo goma luzearekin**. Hasieran litekeena da egunero etxera eramatea, kurtsoa aurrera joan ahala astean behin edo bitan.
- Den-dena markaturik ekarri (zapatak ere), eskegi ahal izateko oihal-xingola edo goma, nahiko luzetsua, josita.
- Arropa eroso. **Ez tiranterik, ez gerrikorik, ezta petorik ere**. Txandalak dira onenak.
- Zapatak belkrodunak edo lotzeko modu erraza, psikomotrizitate saioak dituztenean galtzerdiak ere erabili beharko dituzte.
- Ume bakoitzak arropa poltsa bat ekarriko du, oinetakoak barne, aldatzea beharrezkoa balitz. Arropa hau etxera eramatekotan, ahalik eta lasterren ekarri beharko da berriro gelara.

5).- IRAKASLEEKIN ELKARRIZKETA-EGUNAK. TELEFONO DEIAK

- Ikastetxe osoan ohi denez, hilaren lehenengo eta hirugarren astearteetan 12:30tatik 13:30tara, dena den, ikasturte hasierako zirkularrean jakinaraziko da entrebistetarako zehazturiko egun zerrenda.

- Telefono-deiak: 10:30tatik 11:00tara eta 12:30tatik 13:30tara bitartea egingo dira, premia larria denean izan ezik.

- Hona hemen Saratxagako telefono-zenbakiak: **944606141**

944609861 (Saratxagako jantokia)

6).- URTEBETETZE-EGUNAK

- . Ezin da gozokirik ekarri

- Ikasturte hasierako bileran edo zirkular baten bidez zehaztuko da, taldearen berezitasunak (alergiak eta holakoak) kontutan izanik.

7).- JOSTAILUAK

- Ez daitezela izan oso garestiak, oso handiak ezta arriskutsuak (piladunak, pieza txikiekin, zorrotzak...)

8).- GURASOEN LAGUNTZA IKASTURTEAN ZEHAR

- Eskatzen denean gailetak ekarri (ikasle-zerrendaren arabera)

- Egun berezietan eskatzen den materiala ekarri.

- Motxilan ezin da jateko ezer ere ekarri. (gailetak, fruta, gozokiak)

9).- ESKOLA-ASEGURANTZA

- Ikastetxeko Eskola Kontseiluak gomendatu egiten du ikasle guztiek aseguru hau izan dezaten.

10).- GAISOTASUNAK

- Gaixotasun kutsakorrak: Eskolan abisua eman. Zentzudunak izatea eta errespetuzko jarreraz jokatzera zuen seme-alabarekiko eta beste umerekiko eskatzen dizuegu.

- Sukarra edo beherakoa dutenean ez bidali haurra eskolara.

- Zuen seme-alaben buruan zorriak ikusten badituzue, andereñoari abisatu jakinaren gainean egon dadin. Zorrien kasuren bat ematen bada, guztiei bidaliko zaie orri informatiboa arazoa tratatzeko. Komenigarria izango litzateke astero begiratzea seme-alaben buruak. Zorriak badauzkate, klasera zorriak eta bartzak ondo garbitu arte ez bidaltzea gomendatzen dizuegu.

- Irakasleok ezin dugu botikarik eman. Zauritzen badira, ura eta xaboia erabiliko da zauria garbitzeko. Eta kolpeen kasuan, izotza.

11).- JANTOKIA

- Jateko ordua: 12:30 – 13:00.

- Dieta astringente eskatu nahi izatekotan 10.30ak baino lehen deitu Andra Marira (Jantokia) edo 688810341.

- Umea astebete edo gehiago jantokira etorri gabe egongo bada, bi egun aurretik abisatu hurrengo hilabeteko kuotan egun horiei dagokien %50 ko deskontua jasotzeko.

12).- SIESTA

- Jantokian geratzen diren ume guztiek, 13:00etan siesta egingo dute.

OHARRA:

Dagokion geltokira haurra iritsi ezean, geltokitik mugitu barik dei ezazue telefonoz Garraioko telefonora **688810341** eta esango dizuete zer egin.

Ikasturte hasieran gelan bilera informatibo bat egingo da tutorearekin.